



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

ELGETAKO UDALA

Iragarkia

Alkateak, 2018ko maiatzaren 21eko Dekretu bidez, ondorengo akordioa hartu du:

LEHENA: Elgetan argiteria publikoan LED sistemako argiteria ekipoak hornitu eta instalatze lanak prozedura ireki sinplifikatu bidez kontratatzeko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen orria onartzea, bai eta 74.207,39 €-ko gastua ere (BEZ barne).

BIGARRENA: Proiektua eta preskripzio teknikoen orria onartzea.

HIRUGARRENA: Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea

Lizitazioa arautuko duen administrazio baldintzak onartzea.

1. *Prozedura:* Irekia sinplifikatua.
2. *Izapidetzea:* arrunta.
3. *Lizitazio prezioa:* 61.328,42 € + BEZ.
4. *Egikaritze epea:* 3 hilabete
5. *Espedientea:* dokumentazioa interesatuen esku aurkitzen da Udalaren web orrian (www.elgeta.eus).
6. *Proposamen eredia:* Baldintza Administratiboen pleguaren arabera.
7. *Aurkezteko epea, lekua eta ordua:* proposamenak, Elgetako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira. Proposamenak aurkezteko epea ondorengo izango da: iragarkia Elgetako Udaleko kontratazio profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 eguneko epean (13:00ak baino lehen).
8. *Kaudimen ekonomikoa, finantziarioa eta tekniko edo profesionala:* lizitatuzaileak "Registro Oficial de licitadores y empresas clasificadas del sector público" izeneko erregistroan edo Euskal Komunitate Autonomoko Erregistroan eskaintza aurkezteko azken eguna baino lehenagotik inskribatuta egon beharko dute.
9. *Adjudikazio irizpideak:*
 - Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.
 - Eskeinitako epea: 25 puntu.
 - Hobekuntzak: 25 puntu.
- 10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* eskaintza ekonomikoa irekitzea lizitatuzaileei aurrez jakinaraziko zaie.
- 11.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* lizitatuzaileek administrazio-baldintzen pleguan ezarritako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Elgeta, 2018ko maiatzaren 21a.- Iraitz Lazkano Garitaonandia, alkatea.